


# SOINUMAPA.NET

Euskal Herriko Soinuen Mapa / Mapa de Sonidos de Euskal Herria



ENCUENTRO ESCOITAR.ORG - SOINUMAPA.NET TOPAKETA

2009/11/24-25 UPV/EHU FACULTAD DE B.B.A.A / ARTE EDERREN FAKULTATEA, LEIOA (BIZKAIA)

## ZER DA SOINUMAPA?

SOINU MAPA elkarlanera eskainitako sare egitasmo irekia da. “Fonografia” edo gure inguruko hotsak grabatzeko artea oinarritzat hartuz, proiektu honek landa-grabaketak erakutsi, kontsultatu eta elkartrukatu nahi ditu. Webgune honetan Euskal herrian zehar egindako ehundaka soinu grabaketa entzun daitezke, toki bakoitzaren errealitateari eta izaerari buruz informazioa ematen dituztenak. Zuk ere grabaketak egiteko ohitura edo gogoia baldin baduzu, zure ekarpena egin dezakezu, mapa hau osatu eta zure grabaketak gainerako bisitariekin elkarbanatzeko.

SOINU MAPA [Arteleku](#) Arte Garaikideko Zentruko [Audiolab](#) sailak sortutako egitasmoa da, Xabier Erkizia eta Oier Iruretagoienak zuzendurik, Xavier Balderas, Luz Maria Sanchez eta Enrike Hurtadoren laguntzarekin.

SOINU MAPA 2004ean sortu zen Luz Maria Sanchez soinu artistak Artelekun egindako egonaldi batean sortutako landa grabaketaren artxiboarekin. Geroztik landa grabaketekin lan egiten duten hainbat artistak hartu dute parte beraien artxibo pertsonaletako audio dokumentuak gehituz. Hartara webgunea bizirik mantentzeaz gain Soinumaparen esperientziak soinu paisaien inguruko lan ildo bat sortu du Audiolaben ekitaldien barnean eta besteak beste hitzaldiak, aurkezpenak, kontzertuak, tailerrak, instalazioak, esperientzia didaktikoak eta bestelakoak sortu ditu. Hauen artean beharbada aipagarrienetako bat HOTS! irratia ren sorrera da, non mapak martxan jarritako zenbait eztabaida eta erreflexio irradi-podcast formatuen bidez erakustera ematen diren.

Azken urteotan SOINU MAPA besteak beste, Tuned City (Berlin, 2007), World Forum for Acoustic Ecology (Mexiko, 2009) edo Biennale d’Arte di Venezia (Venezia, 2009) bezalako lekutan aurkeztu izan da.

## QUÉ ES SOINUMAPA?

SOINU MAPA es un proyecto online público y colaborativo basado en la “fonografía” o el arte de grabar los sonidos de nuestro entorno, que pretende mostrar, escuchar y compartir grabaciones de campo. En esta web puedes consultar una colección de grabaciones realizadas en el País Vasco, que dan, cada una a su manera, pistas de las realidades sonoras de cada lugar. Si tienes la costumbre de realizar grabaciones de este tipo o si te apetece participar, simplemente sube tus grabaciones y compártelas con otros visitantes.

SOINU MAPA es un proyecto desarrollado por [Audiolab](#), departamento sonoro del [Centro de Arte Contemporáneo Arteleku](#), coordinado por Xabier Erkizia y Oier Iruretagoiena con la inestimable colaboración de Xavier Balderas, Luz Maria Sanchez y Enrike Hurtado.

SOINU MAPA nació en el año 2004 con la inclusión del archivo sonoro recopilado por la artista sonora Luz Maria Sanchez durante una estancia realizada en Arteleku. Desde entonces varios artistas que trabajan con grabaciones de campo han participado aportando documentos sonoros de sus archivos particulares. Por consecuencia directa, la puesta en marcha de este proyecto inició una línea de trabajo estable dentro de las actividades de Audiolab en torno al paisaje sonoro que, entre otros eventos ha derivado en conferencias, presentaciones, conciertos, talleres, instalaciones, experiencias didácticas etc. Entre estos proyectos derivados podemos subrayar la creación de la radio HOTS! donde se muestran y trabajan varias reflexiones y debates mediante el uso del formato radio-podcast. Durante los últimos años SOINU MAPA ha sido presentado en varios eventos, festivales y espacios entre los que destacan Tuned City (Berlin, 2007), World Forum for Acoustic Ecology (México, 2009) o la Biennale d’Arte di Venezia (Venezia, 2009)

## EGITARAUA / PROGRAMA

**2009/11/24 goizez /** Xabier Erkizia (Artista, ekoizlea, kazetaria, Audiolab Arteleku)

### **Artea, Soinua eta Paisaia nahastearen arazoak**

80. hamarkadan Dan Lander konposatzaile kanadiarrak Sound-Art etiketa asmatu ondotik, badirudi soinu praktikek beren lekua egin dutela zehazteko gero eta zailagoa den Arte garaikidearen munduan. Hauen artean, soinu-paisaiei buruzko lanek ere musikaren arloan kokatzeko izan dituzten arazoak gainditu dituztela ere dirudi. Baina ze punturaino baietatu dezakegu benetan horrelakorik gertatu denik? Benetan soinuarekin eta landa grabaketekin egindako artelanek badute leku jakin bat artearen munduan? Nola gertatu dira orduan orain arte bi alor hauen arteko elkar gurutzatzeak? Eragin al dute inolako gogoetarik, aldaketarik? Edo besterik gabe, beharbada oraindik (ikusizko artea baino aise neurtuago eta mugatuagoa den) musikaren alorraren eta arte kontzeptualaren artean galdurik topatzen diren praktika hauek sailkatzeko beharra dugu?

**24/11/2009 mañana /** Xabier Erkizia (Artista, productor, periodista, Audiolab Arteleku)

### **Problemas de mezclar Arte, Sonido y Paisaje**

Desde que en la década de los 80 el compositor canadiense Dan Lander inventara la etiqueta Sound-Art parece que las prácticas sonoras han encontrado su lugar dentro del cada vez más difuso mundo del arte contemporáneo. Y dentro de estas prácticas parece que las obras en torno al paisaje sonoro han superado las dificultades que encontraron dentro del ámbito puramente musical. Pero hasta que punto podemos afirmar que haya ocurrido algo similar? Tienen este tipo de obras creadas a partir del sonido y las grabaciones de campo un lugar concreto dentro del mundo de arte? Por tanto como han sucedido hasta la fecha los cruces entre estos dos campos? Han generado algún tipo de reflexión? algún cambio? O quizás en realidad todavía intentamos/necesitamos clasificar unas prácticas que desde su naturaleza se encuentran perdidas a medio camino entre el arte conceptual y el campo (mucho más controlado y limitado que el de las artes visuales) de la música?



**2009/11/24 arratsalde /** Iñigo Telletxea (Musikaria, Ertz elkarteko kidea)

### **DIY Mikrofoniak**

Denok mikrofonotzat ulertzen dugun gailu (airearen bibrazioak jaso eta itzultzen dituen tresna mekanikoa) horrez gain, gure inguruneko soinuak -kasu batzuetan gure entzumenarentzako entzunezinak- jasotzeko metodo desberdinak daude. Elektronika jakintza oso oinarritzko batekin eta gutxienezko aurrekontuarekin mikrofono mota desberdinak egin daitezke, gertaera akustiko mordoa jasotzeko baliagarriak izan daitezkenak: materiale fisikoen bibrazioak, eremu elektromagnetikoak, argi frekuentziak eta orokorrean soinu paisaia deitzen diogun hori osatzen duten bestelako fenomeno naturalak.

**2009/11/24 tarde /** Iñigo Telletxea (Músico, miembro de la asociación Ertz)

### **Microfonías DIY**

Además de lo que todos/as entendemos por micrófono (aparato mecánico basado en una membrana que capta las vibraciones del aire), existen diversos métodos para captar sonidos -en muchos casos imperceptibles para nuestros oídos- de nuestro entorno. Con un conocimiento muy básico de electrónica y con un presupuesto mínimo se pueden construir muchos tipos de micrófonos que sirven para captar todo tipo de acontecimientos acústicos: vibraciones de materiales físicos, campos electromagnéticos, frecuencias de luz y otros fenómenos naturales que entre todos conforman eso que llamamos paisaje sonoro.



**2009/11/25 goizez /** Xavier Balderas (Diseinatzailea, web programatzailea)

### **Soinumapa plugin: Egin zure web mapa**

Soinumapa webgunearen azkeneko bertsioak (2009ko udaberria) gure soinuen maparen programazioaren muturreko aldaketa suposatu du. 2.0 tresnak eskaintzen dituzten (eta iada denok ezagutu eta erabiltzen ditugun) abantailak profitatuz, [www.soinumapa.net-en](http://www.soinumapa.net-en) gaurko bertsioak Wordpress edo Googlemaps bezalako baliabide eta bitarteko ezagun, ohiko, ulergarri eta (instalatzeko nahiz jorratzeko) erabilterrazak baliatzen ditu, eta hauekin batera *Soinumapa plugin* deitu dugun mapa-webguneak sortzeko bereziki programaturiko plug-in bat ere bai. Guztiontzat eskuragarri diren tresna hauekin edozein erabiltzaile ez espezializatuk sor dezake, bai soinuak baita edonolako eduki digitalak sarean zintzilikatzeko bere web mapa interaktiboa (definizioz *mash-up*).

**2009/11/25 mañana /** Xavier Balderas (Diseñador, programador web)

### **Soinumapa plugin: Haz tu propio mapa web**

La última versión de la web Soinumapa (primavera 2009) ha supuesto un cambio radical en cuanto a programación de nuestro mapa sonoro. Aprovechando las ventajas que ofrecen las herramientas web 2.0, la versión actual de [www.soinumapa.net](http://www.soinumapa.net) utiliza recursos populares, comunes, accesibles y fáciles de utilizar (e instalar) como Wordpress o Googlemaps que combinados con un plug-in programado específicamente para la ocasión que hemos llamado *Soinumapa plugin* ofrecen la posibilidad a cualquier usuario no especializado de construir su propio mapa interactivo (por definición *mash-up*), ya no sólo para colgar sonidos si no para poder mostrar cualquier tipo de contenidos digitales.